

## Kulturarteko Plaza Feminista

2021eko irailaren 11n ireki zen Hernaniko Kulturarteko Plaza Feminista, feminismoaren alde eta arrazakeriaren aurka lan egiteko erreferentziazko espazio gisa.

Hernaniko emakumeek aspaldi egindako aldarrikapena zen Emakumeen Etxearena, eta askotariko prozesu eta urratsek gorpuztu dute hausnartzeko, formatzeko, artikulatzeko eta sartzeko helburua duen espazioa. Plaza honetan, feminismoaren eta antiarrazakeriaren borrokan diharduten subjektu anitzi tokia egiten zaie.

Hernanin, 2001. urteko apirilean sortu zen Berdintasun Arloa eta harekin batera ia, Berdintasun Kontseilua. Geroztik, feminismoari bultzada eman eta dinamika eta eskaera andana egin ditu Berdintasun Kontseiluak.

Bide horretan, Plaza Feminista mugarri garrantzitsua izan da beti. Udaleko Berdintasun Arloak 2012an Plaza Feminista hartu zuen egoitzatzat. Nahiz eta zerbitzu zabaleko eraikin propioa ez izan, bazen eragile feministentzat erreferentziazko gunea eta biltzeko lekua. Baina azkar gelditu zen txiki eta Plaza Feministako esperientzia hark indartu egin zuen proiektu zabalago baten beharra eta aldarrikapena.

2015. urtean Udal gobernuak Emakumeen Etxea egiteko konpromisoa hartu eta espazio berria egokitu zion Florida kaleko 28an.

Ametsak partekatuzko, espazioaren identitateaz hitz egiteko eta etxea elkarrekin eraikitzeko 2016an partaidetza prozesua abiatu zuten Berdintasun Arloak eta Berdintasun Kontseiluak. Parte hartzea zabala izan zen eta elkar ezagutzeko, sareak egiteko eta elkarrekin pentsatzeko aukera paregabea eman zuen prozesuak. Hizketaldi luzeen ondoren, eraikinaren berriztatze eta moldaketa lanak hasi ziren.

Urte batzuen ondoren, eta eraikina erabat eraldatuta, 2021ko irailaren 11n zabaldu zituen ateak. Arkitektura bioklimatikoaren printzipioak erabiliz eraikia, inguruneke baldintza energetikoak aprobetxatuz bere energia kontsumoan eraginkorra den etxea da gainera.

Egun osoan zabalik dago Hernaniko Kulturarteko Plaza Feminista eta askotariko zerbitzu, ekimen eta baliabideak topa daitezke bertan. Gaur-gaurkoz, Emakumeentzako Jabetze Eskola, sexu eta bikote aholkularitza, emakumeentzako aholkularitza juridikoa, elkar zaintzarako talde iraunkorra, dokumentazio gunea, erakusketak, hitzaldiak, mahai-inguruak eta tailerrak aurki daitezke bertan. Horrez gain, AMHER-SOS Arrazakeriaren bulegoa eta Berdintasun, Kulturartekotasun eta Lankidetzaren Arloen Udal bulegoa kokatzen dira bertan, eta etxeko koordinatzaileek egun osoz ematen dute arreta eta informazioa.

Kulturarteko Plaza Feminista feminismoaren aldeko eta arrazakeriaren aurkako espazioa da. Hernaniren eta munduaren eraldaketan alea jartzera etorri dena eta hausnarketarako, formakuntzarako eta ekintzetarako erreferentzia gunea izan nahi du.